

## GIZARTE LANEKO TITULUDUNAREN PROFILA

Ikasketa hauek amaitzen dituzten pertsonak hainbat trebetasun eta ezagutza garatuak izango dituzte, eta prestatuta egongo dira lanbideko zeregin hauek garatzeko:

- Pertsona, familia, talde, erakunde eta komunitateekin lan egin eta dituzten beharrak eta baldintzak baloratzeko.
- Gizarte Laneko praktika planifikatu, ezarri, berrikusi eta ebaluatzeko pertsona, familia, talde, erakunde, komunitateekin eta beste profesional batzuekin.
- Pertsonen laguntzeko, beren behar, ikuspegi eta egoerak zeintzuk diren adierazteko gai izan daitezten.
- Arrisku egoeretan dauden pertsonen irtenbideak aurkitzen laguntzeko, baita arriskua norberarena eta lankideena denean ere.
- Erakundearen barruko norberaren praktika administratu eta arduratsua izateko, laguntza eta ikuskaritza izanda.
- Gizarteko Laneko jardueran lanbideko gaitasuna erakusteko.

Horregatik, Gizarte Laneko tituludunek hainbat lan arlo eta esparru dituzte, bereziki gizarte zerbitzu pertsonalen arloan, baina baita osasun arloan, hezkuntzan, justizian, enpleguan, hirigintzan eta etxebizitzan, enpresan, ingurumenean, nazioarteko erakundeetan, administrazio publikoan, unibertsitateetan, enpresa pribatuan (besteren kontura zein norberaren kontura), eta hirugarren sektorean (elkarteak, fundazioak, federazioak eta bestelako gizarte erakundeak), egiteko hauek betetzeko:

- ❖ **Prebentzioa.** Giza harremanetan eta gizarte inguruan gizakiei eta giza taldeei arazoak sortzen dizkieten kausetan goiz esku hartzea, arrisku egoeran eta egoera ahulean dauden taldeak bereziki zainduz.

- ❖ **Esku hartze zuzena.** Arazo psikosozialak dituzten pertsonak, familiak, taldeak eta komunitateak artatzea.
- ❖ **Plangintza.** Gizarte planak, programak eta proiektuak diseinatu eta aurrera eramatea. Bi mailatan egiten da: maila mikrosozialean eta makrosozialean. Maila mikrosozialean, tratamenduak, esku hartzeak eta proiektuak diseinatzen dira; makrosozialean, berriz, gizarte programak eta gizarte zerbitzuak.
- ❖ **Irakaskuntza.** Eskola teorikoak eta praktikoak ematea, esparru akademikoetan eta lanbidearen barruan.
- ❖ **Gizarteratzea.** Gizabanakoen eta taldeen gaitasunak, autodeterminazioa eta funtzionamendua berreskuratzeko, mantentzeko eta hobetzeko ekintzak.
- ❖ **Bitartekotza.** Harremanetan eta gizartean pertsonak, familiek eta taldeak dituzten gatazkak tratatu eta konponbidean jartzea.
- ❖ **Gainbegiratzea.** Beste gizarte langile batzuekin batera lan jarduna aztertzea.
- ❖ **Ebaluazioa.** Ekintzetan lortutako emaitzak aztertzea, aurretiaz ezarritako helburuak kontuan hartuta, eta helburu berriak eta helburuak lortzeko bide berriak proposatzea, sormenez.
- ❖ **Kudeaketa.** Zentroen plangintzan, antolaketan eta zuzendaritzan ardurak hartu eta gizarte programak eta zerbitzuak kontrolatzea.
- ❖ **Koordinazioa.** Erakunde batean edo batzuetan profesional taldeen jarduna dinamizatzea, egoeren aurrean lan ildo bat hautatzeko.
- ❖ **Ikerketa.** Laneko datuak bildu eta modu sistematikoan interpretatzea, egoera zailei aurre egiteko modu berriak bilatzeko. Pilatuz doan jakintza hori beste gizarte langile batzuen esku jartzen da, bereziki etorkizuneko profesionalen esku.

Deustuko Unibertsitateko Gizarte Laneko graduak gizartean esku hartuko duten profesionalak prestatzen ditu, gizarte egitura eta prozesuak, gizarte aldaketa eta giza jokabidea zabal ulertzeko. Hartara, gai izango dira...

- a. pertsonak, familiak, taldeak, erakundeak eta elkarteak bizi diren testuinguru sozial eta instituzionaletan esku hartzeko, laguntza emanez; gatazketan esku hartuz; bitartekotza, hezkuntza, defentsa eta sustapen lanetan arituz; eta testuinguru horiek moldatuz, politikoa eta soziala barne;
- b. gizarte politika, zerbitzu eta ekimenen formulazioan eta ebaluazioan parte hartzeko.
- c. herritartasun aktiboa bultzatzeko, "empowerment" (ahalduntzea) delakoaren bidez, eta giza eta gizarte eskubideak bermatzen laguntzeko;
- d. gizarteko arazoaren prebentzioan lan egiteko.

Hori guztia, beste profesional batzuekin batera egingo dute, pertsonen, familien, erakundeen eta elkarten gizarteratzea lortzeko, gizarte kohesionatuagoa eratzeko, eta bizi kalitatea eta gizarte ongizatea garatzeko.